

Fagor Industrial-ek produktu berriak aurkeztuko ditu 2018ko Hostelco azokan

- **KORE** belaunaldiko 900 gamako bloke zintzilikaria izango da standeko protagonista.
- **Beste behin ere, erakusketari gisa aurkeztuko du bere burua Fagor Industrial-ek Hostelco azokan, CM Grup Professional banatzailearen laguntzarekin.**

Madril, 2018ko apirilaren 9a - Fagor Industrial-ek, ostalaritza, talde handientzako sukaldaritza eta garbitegien sektoreko ekipamendua sortzen liderra den enpresak, berriro aurkeztuko du bere burua Hostelco azokan. Hartan, egosketa-makina, ontzi-garbigailu, garbitegietako makina, labe eta hotz komertzialeko gailu berriak aurkeztuko ditu.

Hostelco eta Alimentaria erakundeek batera egingo dute azokaren hurrengo edizioa 2018ko apirilaren 16tik 19ra, Bartzelonan; eta, haren bidez, elikagaien, gastronomiaren eta ostalaritzarako ekipamenduen industriaren plataformarik garrantzitsuenetariko bihurtzeko asmoa dute.

CM Grup Professional enpresa banatzailearekin batera Espainiako azoka nagusienetako batera erakusketari joanda, Fagor Industrial-ek herrialde horretako merkatuaren alde egindako apustua sendotuko du. Haren standak 110 m² baino gehiago izango ditu, eta **8. pabilioiko 1. mailako D 407 standean egongo da kokatuta.**

Egosketa: sendotasuna eta garbitzeko erraztasuna, bereizgarri nagusi

Standeko protagonista nagusietako bat KORE belaunaldiko 900 gamako bloke zintzilikaria izango da. Belaunaldi horrek maila goreneko errendimendua ematen du, eta, batez ere, haren ekipoen sendotasunagatik eta garbitzeko erraztasunagatik nabarmentzen da.

Ontzien garbiketa: energia-fakturaren % 60 arte aurrezten duen ECO sorgailua

Makinen fidagarritasuna eta ekoizpen-gaitasun handiagoa dira garraio-uhala duten ontzi-garbigailuen Concept linea berriaren ezaugarri nagusiak. Gainera, energia-fakturaren % 60 arte aurrezteko ahalbidetzen duen ur bero bidezko ECO sorgailua duen gasezko ontzi-garbigailu bat egongo da konpainiaren standean.

Garbitegien sektorea: garbigailu eta lehorgailu profesionalen modelo berriak



ONNERA GROUP



Halaber, soluzio bakar eta moldaerrez baten bidez merkatuaren segmentu berrietarako atea irekitzen dituzten garbigailu eta lehorgailu profesional berriak egongo da ikusgai Fagor Industrial-en standean. Segmentu berri horien artean, hotel txikiak, haurtzaindegiak eta auzokideen komunitateak egongo lirateke, besteak beste.

Cook&Chill soluzioa eta hutsean ontziratzeko makina berriak

Fagor Industrial-ek aurkeztutako ekipamenduan, Cook&Chill soluzioak ere txoko bat izango du, eta hutsean ontziratzeko makinak izango dira berritasun nagusiak.

Hotza: eraginkortasuna, jasangarritasuna eta errentagarritasuna

Fagor-en hotz komertzialeko produktuen katalogo zabalaren erakusgarri gisa, Globe belaunaldiko hainbat produktu hautatuko dira. Belaunaldi horrek energia-kontsumoaren % 70 arte aurrezten du eta A sailkapena du, sailkapen hori lortu duten lehen fabrikatzaileetako bat izanik.

"Gure egutegian nabarmendutako gertaeretakotako bat da Hostelco, eta ezin dugu huts egin. Nazioartean, testuinguru bikaina da gure bezeroengana hurreratzeko eta produktu-gama bakoitzeko berritasunak aurkezteko", dio José Manuel Domínguezek, Fagor Industrial-en salmenta- eta banaketa-zuzendariak.

Fagor Industrial-i buruz

Fagor Industrial, Mondragon taldean integratutako kooperatiba, ostalaritza, talde handientzako sukaldaritza eta garbitegien sektoreko ekipamendua sortzen liderra den enpresa bat da, eta mundu zabaleko sukalde eta instalaziorik onenetan dago. 60 urte baino gehiagoko esperientzia izanik, ostalaritzako profesionalak egunero dituzten beharrianak ezagutzen ditu Fagor Industrial-ek, eta marka bereko produktuz osatutako gama zabal bat eskaintzen du. ONNERA Group nazioarteko enpresa-taldearen parte da Fagor Industrial. ONNERA Group taldeak 8 lantegi eta 2000 langile baino gehiago ditu munduan sakabanatuta.

Informazio gehiago jasotzeko edo elkarrizketak hitzartzeko, jarri harremanetan pertsona hauekin:

LEWIS

Marina Obrero / Nuria Mañá
FagorSpain@teamlewis.com
917 701 516



ONNERA GROUP



Together we evolve

www.fagorindustrial.com